



TOPONIMIA BATZORDEA

- **Aurreko Jarduketa-planaren balantzea**
- **2015-2016 urteetarako Jarduketa-planaren proposamena**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 3a

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| I. 2011-2013 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak | 3 |
| II. 2015-2016 urteetarako Jarduketa-planaren proposamena | 5 |
| ▪ EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba Interneten kontsultagai jarri | 6 |
| ▪ HPSren datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko aplikazioa martxan jarri | 7 |
| ▪ EAEko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortuko duen dekretua bideratu..... | 8 |
| ▪ EAEko toponimiako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko lankidetzan bideratu | 9 |
| ▪ EAEko toponimiaren zabalkundea estatuan eta nazioartean egiteko, IGNrekin lankidetzan jarraitu | 10 |
| ▪ Toponimia Batzordearen barruan lantalde berezituak antolatu | 11 |
| ▪ Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea eman | 12 |
| ▪ Lanak eta epemugak..... | 13 |



2011-2013 Jarduketa-planaren barruan egindako lanak

2011-2013 Jarduketa-planaren barruan honako lanak gauzatu dira:

a) EAEko Izendegi Geografikoa Eusko Jaurlaritzaren GIS Korporatiboan txertatzea eta izendegi zerbitzua sortzea.

EAEko Izendegi Geografikoa amaitu ondoren, Izendegia Eusko Jaurlaritzako GIS korporatiboan txertatu da. Izendegi zerbitzuari dagokionez, HPSk kontsultak egiteko webgunea eskainiko du.

b) EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba egitea.

EAEko Izendegi Geografikoan eta HPSren datu-basean dagoen informazioari buruz mota desberdinetako kontsultak egiteko balioko duen web-bilatzailea prestatu da. Gainera, webak kontsulten emaitzak mapa batean erakusteko eta mapatik nabigatzeko aukera eskaintzen du. Halaber, etorkizunean toponimoen ahoskera jasotzen duten soinu-fitxategiak txertatzeko eta erreproduzitzeko prestatuta utzi da sistema.

c) EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa egitea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia biltzeko egindako lanen ondorioz sortutako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko aplikazio informatikoa egin da. Aplikazioaren bidez, datu-basean egiten diren eguneraketak momentuan ikus daitezke Interneteko kontsultan ere.

d) EAEko toponimia ofiziala zein den finkatzeko prozedura zehaztea.

EAEko toponimia ofizialtzeko prozedura zehazteko Dekretua landu zen aurreko legealdian eta Toponimia Batzordearen aurrean aurkeztu. Herri-administrazioetatik aurkeztutako alegazioak ikusita, proiektua bertan behera uztea eta beste irtenbide bat proposatzea erabaki zen.



e) Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAeko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu da. Etengabe egiten den lana izanik, 2015a arteko emaitzak emango ditugu hemen: 2011tik hona aldizkari ofizialetan 80 biztanleguneren eta bost udalerriren izenak argitaratu dira, eta une honetan Arabako hiru kontzejuren izen ofizialak aldatzeko espedienteak daude martxan.

Halaber, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitzen dugu herri-administrazioei eta izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsoneri.

Horrez gain, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrek bideratzen dira.

f) EAeko toponimiako datu-basea zuzendu eta eguneratzeko, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta udalekin lankidetzan aritzea.

Erakunde eta eragile guztiekin lankidetzan aritzeko eta informazioa trukatzeko bidea oraindik zehaztu gabe dago. Euskaltzaindiarekin eta Lurralde Antolamenduarekin etengabeko harremana dauka HPSk, unean uneko beharrei erantzuteko. Gainerako erakundeekin lan hori egiteko dago.

g) EAeko toponimiako datu-basea udaletatik jasotako informazioarekin osatu, zuzendu eta eguneratzea.

Lurralde Antolamenduak udalerriko mapak egiteko diru-laguntza deialdia ateratzen du urtero. Mapa horiek HPSrentzat informazio-iturri garrantzitsua direnez, egiten diren mapa berriak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzan jasotzen dira. Informazioa pixkanaka erkutzen eta zuzentzen hasi dira Zuzendaritzako teknikariak. Aurrerantzean ere etengabe egin beharreko lana izango da.

h) Toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak finkatzeko landu zen dokumentua Toponimia Batzordeak onartzea.

Toponimia Batzordeak toponimoak kartografian errotulatzeko irizpideak aztertu eta onartu zituen. Ondoren, www.euskara.euskadi.eus webgunean jarri ziren kontsultagai (http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/toponimia_onomastika/eu_edukia/topo_karto.html).

2015 eta 2016 urteetarako Jarduketa-planaren proposamena



EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba Interneten kontsultagai jartzea

EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba Interneten jartzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datu-basean eta EAEko izendegi Geografikoan jasotzen diren toponimoak erabiltzaileentzako kontsultagai jartzeko web-bilatzailea martxan jartzea.

Deskribapena: EAEko Izendegian eta HPSren datu-basean dagoen informazioari buruz mota desberdinetako kontsultak egiteko balioko duen web-bilatzailea egin da. Gainera, webak kontsulten emaitzak mapan erakusteko eta mapatik nabigatzeko aukera eskaintzen du. Halaber, etorkizunean toponimoen ahoskera jasotzen duten soinu-fitxategiak txertatzeko eta erreproduzitzeko prestatuta utzi da sistema.

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa kontsultatzeko web-bilatzailea Interneten jartzea, informazio hori modu errazean, osatuan eta erakargarrian erabiltzaileen eskura jartzeko.

Data: 2015eko abendua.

Egileak: HPS.



HPSren datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko aplikazioa martxan jartzea

HPSren toponimiako datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa martxan jartzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko toponimia biltzeko egindako lanen ondorioz sortutako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko aplikazio informatikoa martxan jartzea. Aplikazioaren bidez, toponimia ezagutzen duten eragileek informazio okerra zuzentzeko edo falta den informazio garrantzitsua txertatzeko proposatu ahal izango dute eta datu-basean egiten diren eguneraketak modu automatikoan ikusiko dira Interneteko kontsultan ere.

Deskribapena: Toponimiako datu-basean jasota dagoen informazioa eguneratuta eduki behar da, herritarrek zein erakundeek dituzten beharrei erantzuteko momentuan eraginkorra eta erabilgarria izatea nahi badugu. Eguneratzea egiteko ardua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak du, eta horretarako hainbat iturri desberdin erabiltzen ditu: aldizkari ofizialak, Euskaltzaindiarekiko lankidetzak, beste administrazio batzuekiko lankidetzak, argitalpenak, mapa toponimikoak, ahozko galdeketak, etab. Hori dela eta, toponimiako datu-basearen eta EAEko Izendegi Geografikoaren mantentze-lanak egiteko tresna informatiko bat garatu da, eta eragile desberdinek aplikazioaren bidez proposamenak helarazi ahal izango dizkiote HPSri modu erraz eta arinean. Horrela mantentze-lan horiek erraztasunez, egokitasunez eta zuzentasunez egiten direla bermatuko da.

Proposamen horiek helarazteko, eskatzen duten eragileei aplikazioan sarbidea emango zaie eta informazio alfanumerikoa zein geografikoa zuzentzeko edo osatzeko proposamena egin ahal izango dute. Horrez gain, datu-baseko informazioa jaso ahal izango dute PDF edo Excel formatuan

Proposamena: EAEko toponimiako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa martxan jartzea, aldizkari ofizialetatik, argitalpenetatik, beste administrazio batzuekiko eta Euskaltzaindiarekiko lankidetzatik, mapa toponimikoetatik, eta bestelako iturrietatik jasotako informazioa kudeatzeko.

Data: 2015eko abendua.

Egileak: HPS



EAEko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortuko duen dekretua bideratzea

EAEko toponimia ofiziala jasoko duen erregistroa sortzea eta hori erregulatzea.

Helburua: Eskumena duten erakundeek ofizialtzat onartutako toponimia bilduko duen Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortzea eta horren ingurukoak arautzea, bertan jasotzen diren toponimoak mapetan, testuetan, erregistroetan eta gainerako erabilera ofizialetan erabil daitezzen.

Deskribapena: Biztanleguneen eta udalerrien izen ofizialak Aldizkari Ofizialetan argitaratzen diren arren, gaur-gaurkoz ez dago EAEko gainerako toponimia ofiziala jasotzen duen erregistrorik. Horren ondorioz, askotan zehaztasun falta ikusten da toponimia horren erabileran. Hala, toponimo bera bi edo hiru idazkera desberdinekin aurki dezakegu. Hori saihesteko, ezinbestekoa da toponimia ofiziala jasoko duen erregistro bat egotea, erabiltzaile guztien erreferentzia izango dena, esparru guztietan erabilera bateratua bermatzeko.

Proposamena: EAEko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortuko duen dekretua bideratzea. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak testuaren zirriborroa proposatuko dio Toponimia Batzordeari azter dezan. Behin Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartuta, EAEko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortuko da. Erregistro hori publikoa izango da eta web baten bidez gizarteratuko da.

Data: 2016ko ekaina.

Egileak: HPS

EAEko toponimiako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko lankidetza bideratzea

EAEko toponimiako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko, erakunde desberdinekin lankidetza eremuak antolatzea.

Helburua: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak udalekin, aldundiekin, Euskaltzaindiarekin eta bestelako erakundeekin lan egitea, bertan jasotzen diren txostenak, mapak eta gainerako informazioak kontrastatzeko.

Deskribapena: Lurralde Antolamenduak udalerrietako mapetarako diru-laguntza ematen du urtero. Horren ondorioz, HPSra datu-baseko toponimoak jasotzeko eskaerak heltzen dira, eta HPSn mapa horiek gure datu-basea osatzeko, eguneratzeko eta zuzentzeko iturri bezala erabiltzen ditugu. Zenbait kasutan iturri desberdinetako toponimoak ez datoz bat eta beharrezkoa izaten da udalarekin eta Euskaltzaindiarekin informazioa egiaztatzea.

Lan hori modu ordenatuan egitea ezinbestekoa ikusten da EAEko Izendegi Geografikoan eta Izen Geografiko Ofizialen Erregistroan ahalik eta datu gehien egon dadin, eta modurik zuzenenean.

Proposamena: HPSren, udalen, aldundien, Euskaltzaindiaren eta gainerako erakundeen artean lankidetza sustatzeko bidea aztertzea eta proposamen zehatza egitea.

Data: 2016ko abendua.

Egileak: HPS, Euskaltzaindia, Lurralde Antolamendua, aldundiak, EUDEL, udalak.

EAEko toponimiaren zabalkundea Estatuan eta nazioartean egiteko, IGNrekin lankidetzan jarraitzea

EAEko toponimia Estatuan eta nazioartean zabaltzeko IGNrekin lankidetzan jarraitzea.

Helburua: IGNren Nomenclátor Geográfico Nacionalean dauden EAEko toponimoak zuzentzea, izendegia osatzea eta irizpide bateratuak lantzea.

Deskribapena: IGNren Nomenclátor Geográfico Nacionalean jasotzen den toponimia erreferentea da Europako eta nazioarteko erabiltzaileentzat, eta, beraz, isla dauka teknologia berrietan, kartografian zein toponimiaren bestelako erabilpenetan. Horregatik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza IGNrekin lankidetzan estuan ari da aspalditik, erakunde horren Nomenclátor Geográfico Nacionalean dauden EAEko toponimoak zuzentzeko eta informazioa partekatzeko. IGNrekin lankidetzan jarraitzea ezinbestekoa da aipatutako izendegia hornitzeko eta, aldi berean, toponimiaren zabalkundea nazioartera hel dadin.

Proposamena: IGNren Nomenclátor Geográfico Nacionalean jasotzen den toponimia zuzentzeko, izendegia osatzeko eta hornitzeko lanean jarraitzea, eta horretarako bideak irekitzea.

Data: Etengabe.

Egileak: HPS, IGN.

Toponimia Batzordearen barruan lantalde berezituak antolatzea

EAEko Izendegi Geografikoaren eta Izen Geografiko Ofizialen Erregistroaren informazioa koherentea eta egokia izateko neurriak hartzeko eta gai zehatzak aztertzeko lantalde teknikoak antolatzea.

Helburua: EAEko toponimia modu gradualean aztertzeko, irizpideak lantzeko edota gatazka sor dezaketen toponimoen gaineko eztabaida bideratzeko adituen lantaldeak antolatzea.

Deskribapena: Zenbait udalerritan toponimia sakon aztertu dute eta lan horren emaitza eskuragarri dago argitalpenetan, udalerrien webguneetan, etab. Baina beste askotan ez da toponimia landu, beraz, jasota dagoen informazio toponimikoa ez da beti eguneratua. Horrez gain, toponimian irizpide bateratuak erabiltzea garrantzitsua da, eta askotan ez da kontuan hartzen ondokoak hartu dituen erabakiak edo ez dago horien atzean irizpide garbirik. Horren ondorioz, zenbait kasutan kontraesanak sortzen dira, bai udalerrri desberdinen arteko erabakietan, baita udalerrri beraren barruan ere.

Hori konpontzeko modurik egokiena adituen lantalde berezituak antolatzea da. Toponimia Batzordeak kasuan kasuko gaiaren arabera erabakiko du nortzuk izango diren partaideak, bai erakunde interesatuei dagokienez, bai adituei dagokienez. Kasu horietan, irizpideak bateratzeko ahaleginak egingo dira, beti ere, herri erakunde ezberdinen eskumenak errespetatuz.

Proposamena: HPSk aztertu beharreko gaien proposamena Toponimia Batzordeari helaraztea, kasuan kasuko partaideak proposatuz.

Data: 2015eko abendua.

Egileak: HPS, Euskaltzaindia, Lurralde Antolamendua, aldundiak, EUDEL, udalak, IGN



Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea

Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea.

Helburua: EAEko biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin izan du eta egiten du lan hori.

Deskribapena: Euskararen Legean toponimoak ofizialtzeko finkatutako irizpidearen arabera, izen ofiziala aldatzeko premia ikusten den kasuetan, udalerrien eta biztanleguneen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraitu behar da. HPSren aldetik, izen ofiziala aldatu nahi duten toki-entitateei espedientearen izapideak burutzeko laguntza eskaintzen zaie.

Bestalde, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segitu behar da herri-administrazioei eta izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi duten bestelako erakunde, enpresa edota pertsoneri. Azkenik, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratzen jarraituko da.

Proposamena: Lan hau egiteko zailtasunak daudenean, erakundeen aldetik erantzunik jasotzen ez delako, Toponimia Batzordeko kideren baten laguntza beharrezkoa izan liteke egoera desblokeatzen saiatzeko.

Data: Etengabe

Egileak: HPS, aldundiak eta udalak

TOPONIMIA BATZORDEA

2015-2016ko jarduketa-plana: lanak eta epe-mugak

| EGIN BEHARREKO LANAK | EPE-MUGA |
|---|-----------------|
| EAEko toponimiako datu-basea eta Izendegi Geografikoa kontsultatzeko weba Interneten jartzea. | 2015eko abendua |
| HPSren toponimiako datu-basea eta EAEko Izendegi Geografikoa osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko mantentze-aplikazioa martxan jartzea. | 2015eko abendua |
| EAEko toponimia ofiziala jasoko duen erregistroa sortzea eta hori erregulatzea. | 2016ko ekaina |
| EAEko toponimiako datu-basea osatzeko, zuzentzeko eta eguneratzeko, erakunde desberdinekin lankidetzaren eremuak antolatzea. | 2016ko abendua |
| EAEko toponimiaren zabalkundea estatuan eta nazioartean egiteko, IGNrekin lankidetzan jarraitzea | Etengabe |
| EAEko Izendegi Geografikoaren eta Izen Geografiko Ofizialen Erregistroaren informazioa koherentea eta egokia izan dadin, gai zehatzak lantzeko lantalde teknikoak antolatzea. | 2015eko abendua |
| Biztanleguneen izen ofizial desegokien aldaketa bultzatu eta izen ofizial berriei zabalkundea ematea. | Etengabe |